**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

EBAZPENA, 2002ko martxoaren 12koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, 21/02 lehiaketa publikoa iragartzeko dena. Lehiaketa horren bidez Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko plan estrategikoa gauzatzeko azterketak eta lanak egiteko kontratua adjudikatuko da. 6235

EBAZPENA, 2002ko martxoaren 13koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, 22/02 lehiaketa publikoa iragartzeko dena. Lehiaketa horren bidez 2002/2003ko Hezkuntza Gidak izeneko triptiko-liburuxkak egiteko kontratua adjudikatuko da. 6237

ESLEIPENA, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitaterako hornigaiak erosteko kontratuena. 6238

ESLEIPENA, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitaterako hornigaiak erosteko kontratuena. 6241

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

RESOLUCIÓN de 12 de marzo de 2002, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se anuncia concurso público n.º 21/02 para la adjudicación del contrato de los estudios y trabajos para la elaboración del plan estratégico de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. 6235

RESOLUCIÓN de 13 de marzo de 2002, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se anuncia concurso público n.º 22/02 para la adjudicación del contrato de realización de folletos trípticos, denominados, Guías Docentes 2002/2003. 6237

ADJUDICACIÓN de Contratos de Suministros de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. 6238

ADJUDICACIÓN de Contratos de Suministros de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. 6241

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

**HERRIZAINGO SAILA**

IRAGARKIA, ondorengo zigor-espedienteei dagokien zigor-ebazpena jakinarazteko dena. 6242

## Otros Anuncios Oficiales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

ANUNCIO por el que se notifica la resolución del recurso de alzada en los siguientes expedientes sancionadores. 6242

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-2079

3/2002 LEGEA, martxoaren 27koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak honako lege hau onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

Martxoaren 27ko 3/2002 LEGEA, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruz.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-2079

LEY 3/2002, de 27 de marzo, relativa al reconocimiento y compensación a quienes impartieron docencia en ikastolas con anterioridad a su normalización jurídica.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente

LEY 3/2002, de 27 de marzo, relativa al reconocimiento y compensación a quienes impartieron docencia en ikastolas con anterioridad a su normalización jurídica.

ZIOEN ADIERAZPENA

Gaur egun, euskara irakaskuntzan (unibertsitatea barne), hedabideetan eta kulturaren nahiz gizartearen gainerako eremuetan bizirik dagoenez, goretsi beharrekoak dira frankismoaren garaian, oso baliabide gutxirekin eta gorabehera asko kontra zituztela, euskal eskola abian jartzea lortu zuten aurreneko irakasleen idealismoa, kemena eta lana.

Lege-esparruak euskara eskoletan sartzeko modurik ematen ez zuela ikusita, esperientzia arriskutsu bat sortu zen, urte askoan erabateko klandestinitatean egin zena eta pertsona haiek beren bizitzan eta beren lan-eremuan egindako sakrifizioari esker gauzatu zena.

Orduko irakasle haiek baliabide urriak izaten zituzten, ikasleen familiek emanak gehienbat, eskolak emateko erabiltzen zen lokalaren alokairua ordaintzeko, materiala erosteko eta soldata txiki bat jasotzeko. Oporretan ez zuten inolako soldatarik izaten. Gainera, Gizarte Segurantzari ezin zioten ezertxo ere ordaindu, eta orduan kotizatu ez izana gaur egun kaltegarria zaie beren eskubide pasiboetarako.

Klandestinitate latz hura hirurogeiko hamarkadako azken urteetaraino luzatu zen, orduan hasi baitzen euskarazko irakaskuntzaren egoera hobetzen: garai horretan ikastolek legeztatu gabe jarraitzen zuten, baina nolabait ere toleratzen zituzten.

Aldi berri horretan sortu ziren guraso-elkarteak, eta ikastegien gai ekonomikoak kudeatzeari ekin zioten. Horren ondorioz, irakasleen lan-baldintza eskasak hobetu egin ziren, baina, baliabide ekonomiko urriak zituztenez, hainbat urtetan ezin izan zuten Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaindu. Ikastola bakoitzak ahal izan zuenean eman zien alta bere irakasleei.

Lege honen bidez, aintzat hartu nahi dira irakasle haiek, nahiko merezimendu badute eta; izan ere, lan handia egin zuten euskara berreskuratzen eta iraunarazten, jakintza eta kultura zabaltzeko tresna den aldetik. Horrekin batera, lege honen berariazko xedea da, batetik, Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaindu ez izanak kaltea eragin dien irakasleei halako ordain bat ematea eta, bestetik, beren lan-bizitza ohiko erretiro-adinetik aurrera luzatu beharrik ez izatea.

Hori dela eta, ordainaren zenbatekoa txikiagoa izango da lan-baldintzak eta gizarte-aurreikuspeneko baldintzak hobeak izan ziren neurrian, aldi berean beste jarduera batean aritu zirelako edo ikastolan egindako lanari beste itxura bat eman ziotelako. Izan ere, kasu horietan klandestinitateak ez die kalterik eragiten eskubide pasiboei.

Legeak irakasle haiei edo haien alargunei bakarrik aitortzen die eskubide hori, batez ere haiek hartu zutelako lan haren nekea, edo haiengandik hurbil egon zirelako, eta haien eskubide pasiboei bakarrik eragiten zaielako.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hoy que el euskera está presente en la enseñanza, incluida la Universidad, en los medios de comunicación y en los demás ámbitos culturales y sociales, procede reconocer el idealismo, la valentía y el esfuerzo del primer profesorado que, con tan pocos recursos y tantos factores en contra, puso en marcha la escuela vasca en pleno franquismo.

Dado que el marco legal no permitía introducir el euskera en las escuelas, se inició una arriesgada experiencia que se desarrolló en total clandestinidad durante largos años, basada en el sacrificio profesional y personal de aquellas personas.

Aquel profesorado inicial disponía de pequeñas cantidades, aportadas por las familias del alumnado, para hacer frente al alquiler del local donde se daban las clases, a la compra de material y a un pequeño sueldo, que no se percibía durante las vacaciones y sin poder cotizar a la Seguridad Social, con lo que esto supone todavía hoy de lesión en sus derechos pasivos.

Esta situación de dura clandestinidad se prolongó hasta finales de la década de los sesenta, en que empieza a regularizarse la situación de la enseñanza en euskera, pasando a una fase de ikastolas no legalizadas, pero en cierta forma toleradas.

En esta nueva fase se fueron creando juntas de padres y madres que empezaron a gestionar la economía de los centros, mejorando las precarias condiciones laborales del profesorado, aunque la limitación de recursos económicos dificultó, durante bastantes años, hacer frente a la cotización de la Seguridad Social, por lo que cada ikastola fue dando de alta al profesorado conforme sus posibilidades se lo permitían.

Además del merecido reconocimiento a la importante contribución de aquellos enseñantes a la recuperación y al mantenimiento de la lengua vasca como vehículo de transmisión del conocimiento y la cultura, esta ley tiene como finalidad específica compensar las consecuencias negativas que acarrea a algunos de ellos la falta de cotización a la que se ha hecho mención y evitar que tengan que prolongar su vida laboral más allá de la edad ordinaria de jubilación.

Por ello, se minorará la cuantía cuando las condiciones laborales o de previsión social fueran mejores, al amparo de otra actividad simultánea o cubriendo con otra apariencia la enseñanza en la ikastola, pues en estos casos los derechos pasivos no sufren perjuicio derivado de la clandestinidad.

La ley reconoce el derecho exclusivamente a los propios docentes o a sus cónyuges viudos, por ser quienes más directamente realizaron el esfuerzo o han permanecido personalmente cercanos al mismo, y los únicos que ven afectados sus derechos pasivos.

Gainerakoan, legeak ordainaren funtsezko ezaugarriak adierazten ditu, ordain horren zenbatekoa araudi bidez zehazteko utzita. Era berean, legeak erraztasuna ematen du ikastaroak, alderdi askotatik era informalean bada ere, benetan eman zirela egiaztatzeko; hala, ikastaro horiek emandakotzat joko dira, baldin eta ikerketa zientifiko edo kulturaletan jasota badago eman zirela. Ekimen hau instituzioek aintzat hartu beharreko gai batean gizarteak duen interesaren beste erakusgarri bat da.

LEGE PROPOSAMENA

*1. artikulua.–* Helburua.

Ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzen zaie ikastoletan 1967-1968 ikasturtera arte irakasle aritu zirela egiaztatzen dutenei, lege honetan eta lege hau garatzen duten xedapenetan aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

*2. artikulua.–* Onuradunak.

Honako hauek izango dira lege honetan aurreikusitako ordainaren onuradunak: eskolaurreko, lehen mailako edo bigarren mailako hezkuntzan euskaraz irakasten aritu zirela egiaztatzen dutenak, baldin eta irakaskuntza ofizialean ezarritako irakastaldien iraupen berdintsuko aldietan aritu baziren, edo haien ezkontideak, lege hau indarrean sartzean alargun badira.

*3. artikulua.–* Ordainaren edukia.

1.– Ordainaren zenbatekoa dekretu bidez zehaztuko da, 1967-1968 ikasturtera arte emandako ikastaroen kopuruaren arabera.

2.– Zenbatekoa txikiagoa izango da, baldin eta irakasle aritu zena inoiz edozein gizarte-asegurutan, Gizarte Segurantzaren erregimenen batean edo haren ordezkoren batean alta emanda edo altaren pareko egoeran egon bazen, edo edozein arrazoirengatik Gizarte Segurantzaren erregimen batean sartu badute.

3.– Aurreko artikuluan aipatzen diren irakasleek prestakuntzan emandako dedikazio osoko aldiak irakaskuntzan emandakotzat hartuko dira.

*4. artikulua.–* Eskariak.

Eskariak sei hileko epean aurkeztu beharko dira, lege hau garatzen duen dekretua indarrean sartzen den egunetik kontatzen hasita.

*5. artikulua.–* Frogabideak.

1.– Ikastaroak eman izana frogatzeko, zuzenbidean onartutako edozein bide erabil daiteke.

2.– Garapen-dekretuan zehatz daitezke onargarritzat jotzen diren zenbait frogabide.

3.– Ikastaroak emandakotzat joko dira baldin eta ikerketa zientifiko edo kulturaletan jasota daudela

Por lo demás, la ley define los elementos esenciales de la compensación, cuya cuantía se concretará reglamentariamente, y facilita la prueba de la impartición de los cursos, informal en muchos aspectos, presumiendo aquélla cuando se haya incluido en investigaciones científicas o culturales, lo cual es una muestra más del interés colectivo en un aspecto de nuestra realidad que merece una adecuada atención de las instituciones.

PROPOSICIÓN DE LEY

*Artículo 1.–* Finalidad.

Se reconoce el derecho a una compensación económica a favor de quienes acrediten que impartieron enseñanza en ikastolas hasta el curso académico 1967-1968, en los términos y condiciones establecidos en la presente ley y en las disposiciones que la desarrollen.

*Artículo 2.–* Beneficiarios.

Serán beneficiarios de la compensación establecida en esta ley quienes acrediten haber impartido enseñanza en euskera en los niveles de educación preescolar, primaria o secundaria, desarrollando la actividad docente con una duración similar a la de los periodos lectivos establecidos en la enseñanza oficial, o sus cónyuges viudos a la entrada en vigor de esta ley.

*Artículo 3.–* Contenido de la compensación.

1.– La cuantía de la compensación se determinará mediante decreto, en función del número de cursos impartidos hasta el de 1967-1968.

2.– La cuantía será menor cuando corresponda a periodos en que quien impartió la enseñanza se mantuviera en alta, o situación asimilada, en cualquier seguro social, régimen de Seguridad Social o sustitutorio de la misma, o hubiera sido objeto de integración en algún régimen de Seguridad Social, cualquiera que fuera la actividad que motivó esa situación o integración.

3.– Los periodos de dedicación exclusiva a la formación de los docentes a que se refiere el artículo anterior se considerarán como impartición de enseñanza.

*Artículo 4.–* Solicitudes.

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del decreto que desarrolle la presente ley.

*Artículo 5.–* Medios de prueba.

1.– La prueba de la impartición de los cursos podrá llevarse a cabo por cualquier medio admitido en derecho.

2.– El decreto de desarrollo podrá establecer determinados medios de prueba como suficientes.

3.– Se presumirá la impartición de cursos cuando se acredite su inclusión en investigaciones científicas o cul-

egiaztatzen bada eta ikerketa horiek lege hau indarrean sartu baino lehen argitaratu edo erregistratuta badaude.

*6. artikulua.–* Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Prozeduretan, ebazpena emateko eta jakinarazteko epea bederatzi hilekoa izango da, eskaria ebatzi behar duen organoan sartzen den egunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Garapen-dekretua.

Lege hau garatzeko dekretua sei hileko epean emango du Jaurlaritzak, legea indarrean sartzen den egunetik kontatzen hasita.

*Bigarrena.–* Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko apirilaren 2an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

turales publicadas o registradas con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley.

*Artículo 6.–* Plazo de resolución y notificación.

El plazo para dictar y notificar la resolución en los procedimientos será de nueve meses, contados a partir de la entrada de la solicitud en el registro del órgano competente para resolverla.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Decreto de desarrollo.

El Gobierno dictará, en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta ley, el decreto que la desarrolle.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de abril de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## KULTURA SAILA

## Zk-2080

AGINDUA, 2002ko martxoaren 12koa, Kultura sailburuarena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko ariel eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legeko 180. artikuluak ematen dizkidan ahalmenen indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak prezio publikoen bidez ordaindu ditzaketen zerbitzu eta jardunak zehazten dituen uztailaren 21eko 161/1998 Dekretuaren arabera eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak espediente horren aldeko irizpena eman duela kontuan hartuta, honako hau

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-2080

ORDEN de 12 de marzo de 2002, de la Consejera de Cultura, por la que se fijan los precios públicos de los servicios que presta y las actividades que realiza el Organismo Autónomo HABE.

En virtud de las facultades que me confiere el artículo 180 de la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de acuerdo con el Decreto 161/1998, de 21 de julio, por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, habiéndose informado favorablemente el expediente correspondiente por el Departamento de Hacienda y Administración Pública